


Oraingo honetan aztergai dugun espezie honen familian, 8 genero eta 200 espezie inguru ezagutzen dira eta, Ipar Hemisferio eta Hego Amerikako herrialde epeletan daude banatuta. Aipagarria da,



oro har, mediterraneo eskualdeko sastrakadi edo txaradietan familia honek duen dibertsitate eta ugaritasuna. Euskal Herriari da-

gokioenez, *Cistus* generoko 8 espezie ezagutzen dira. Hauetako batzuk oso banaketa urria dute. Oro har, espezie guzti hauek estrepa izenaz ezagutzen badira ere, kostaldeko hainbat herritan txara izenaz ere ezagutzen dira. Aipatu genero honen barruan, gure eskualdeetan hobekien ordezkatuta dagoena, *Cistus salvifolius* espeziea da, dudarik gabe. Zuhaiska edo mulu txikia da, eta metro bateraino irits daiteke. Orokorrean, oso adarkatua da eta adaska berriak tomentu fin batez estalia izaten ditu. Hostoak obatu-eliptikoak, kamutsak eta zimurtsuak, nahikoa handiak 4-5 cm ingurukoak, dira. Petalo zurriak ditu. Maiatza eta ekainean loratzen da bereziki. Fruituak berriz, kapsula pentagonalak, uda bukaerarako heltzen dira.

Lurzoru azidifikatuko txaradi edo sastrakadiak dira espezie honen habitatik tipikoenak, eta 0tik 1.000 metro bitarteko altuerara aurki daitezke. Oso arrunta da Mediterranioko eskualdeetan, Kantauri aldean aldiz, leku epeletan bakarrik ugaritzen da. Sendabelar modura erabili ohi da estrepa hau, batez ere zauriak sendatzeko hostoak erabili izan dira. Edozein motako pozoiaren aurka ere erabili izan da landarea egosita.



* Naturalista.

Txaradiaren labirintoan... estrepa

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOA

Estrepa, txara

Familia:	zistazeoak
Espezia:	<i>Cistus salvifolius</i>
Banaketa	banatua
Habitata:	txaradiak
Sendabelarra:	bai

